

Martin Garaidiren fitxa: euskal detektibeen aitonaren atzetik

Ficha de Martín Garaidi: tras la pista del abuelo
de los detectives vascos

Fiche de Martin Garaidi : sur la piste de l'ancêtre
des détectives basques

The Martin Garaidi file: on the trail of the grandfather
of basque detectives

CILLERO, Javier
Nevadako Unibertsitateko doktorea

Noiz jaso: 2016-10-05
Noiz onartua: 2017-07-17

Euskera. 2016, 61, 2. 463-483. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskaraz idatzitako detektibe nobeletan Martin Garaidi dugu lehen detektibea, Jose Antonio Loidik 1953an *15 egun Urgain'en* eleberrian sortua. Ikerlan honetan Loidik sortutako pertsonaia aztertzen da, nolako testuinguruan sortu zen argitzeko. Garaidi pertsonaia detektibe nobela klasikoan detektibeen ondoan ipinita, hobeto ulertuko dugu nola egokitu den generoa euskal literaturara. Azpigenoaren arauak zainduta, Loidik euskararen unibertso literarioa zabaltzea lortu zuen gerraondoko urteetan.

Hitz gakoak: detektibe nobela, euskal detektibeak, Jose Antonio Loidi.

Martin Garaidi es el primer detective conocido dentro de las novelas policíacas escritas en euskera. Lo creó Jose Antonio Loidi en la novela *15 egun Urgain'en*. En este artículo se analiza el personaje creado por Loidi y el contexto en que se creó. Si situamos a Garaidi junto a la figura clásica del detective de las novelas clásicas, entenderemos mejor como se ha acoplado el género a la literatura vasca. Cuidando las reglas del subgénero, Loidi consiguió ampliar el universo literario del euskera en los años de la posguerra.

Palabras clave: Novela policíaca, detectives vascos, Jose Antonio Loidi.

Martin Garaidi est le premier détective connu du roman policier en langue basque. Il fut créé par Jose Antonio Loidi dans son roman *15 egun Urgain'en*. Cet article analyse le personnage créé par Loidi et le contexte dans lequel il fut créé. Si nous situons Garaidi dans la figure classique du détective, nous comprendrons mieux comment ce genre s'est introduit dans la littérature basque. En respectant les règles de ce sous-genre, Loidi parvint à élargir l'univers littéraire de la langue basque dans les années d'après-guerre.

Mots-clés : Roman policier, détectives basques, Jose Antonio Loidi.

Martin Garaidi is the first known detective to star in novels written in Basque. He was created by Jose Antonio Loidi in the novel *15 egun Urgain'en*. This paper assesses the character created by Loidi and the context in which he was created. Placing Garaidi alongside the classic detective figure in novels of the genre allows a better understanding of how this genre hooked up with Basque literature. By following the rules of the sub-genre, Loidi managed to expand the Basque literary world in the post-war years.

Keywords: Detective novel, Basque detectives, Jose Antonio Loidi.

Sarrera

Detektibearen rola ezinbestekoa da detektibe nobela klasikoetan, generoaren osagai oinarrizko bat izanda. Euskaraz idatzitako detektibe nobeletan¹ Martin Garaidi dugu lehen detektibea, Jose Antonio Loidik 1953an *15 egun Urgain'en* eleberrian sortua. Berandu jaiotako detektibea dugu Garaidi, beste literatura batzuei begiratuta, eta isolaturik: zenbait urtez ez zuen seniderik izan euskal literaturan. Horregatik, beharbada, euskal literaturaren historietan beti aipatzen dira bitxikeria gisa Loidiren eleberria eta Garaidi detektibea. Bestalde, denboraren poderioz, gazte literaturaren alorrera lerrotu da nobela, adituek azaltzen digutenez (Xabier Etxaniz 832, Manu López 850).

Oraindik ez da zehazki aztertu nola kokatzen den Loidik sortutako pertsonaia genero poliziakoaren azpisailetan. Hau da, jakintzat ematen da detektibe nobela tradizionalako pertsonaia dela, baina ez da guztiz zehaztu nolako testuinguruan sortu zen. Alde horretatik, jakingarria litzateke aztertzea lehenengo euskal detektibea literatura unibertsalaren parametroen bidez, nolako jatorria izan zuen jakiteko. Garaidi pertsonaia detektibe nobela klasikoen detektibeen ondoan ipinita, ezberdintasunak eta antzekotasunak nabaritu dira, eta hobeto ulertuko dugu nola egokitu den generoa euskal literaturara. Análisi labur honetan, lehenengo lerro nagusiak azpimarratuko dira, beste batean gero eta sakonago ikertzeko.

Detektibe nobela klasikoaren ezaugarriak: egitura eta pertsonaiak

Kontakizun poliziakoaren aitzat jotzen dugu Edgar Allan Poe idazle iparramerikarra. Dударik gabe, Poek generoaren arau isilpekoak ezarri zituen 1841. urteaz geroztik *Morgue kaleko hilketak*, *Marie Rogêten misterioa* eta *Gutun ebatsia* ipuinetan. Harrezkero, beti nabaritu dira genero honen

¹ Idazlan honetan «detektibe nobela» aipatzen dugunean, hain zuzen ere, detektibe nobela klasikoaz arituko gara, «nobela beltza» generotik bereizteko.

lanetan ezaugarri berezi batzuk: gertakizunen egitura landua, narrazioari buruzko hausnarketa, irakurketa hermeneutiko bat eta idazleak irakurleari enigma bat argitzeko egiten dion lehia jolaskor bat (Pyrhönen 3).

Poeren ipuinen ondoren, zenbait nobela ere argitaratu ziren genero jaioberri hartan. Emile Gaboriau, Frantzian, eta Wilkie Collins, Ingalaterran, nobelagilerik ezagunenak ditugu XIX. mendearen bigarren erdian. Nolanahi ere, Arthur Conan Doylek Sherlock Holmesen abenturak plazaratu zituenetik, ipuina nagusitu zen misteriozko kontakizunetan. Doylek berak Holmesen nobelak ere idatzi zituen, baina prentsan argitaratutako ipuinei zor zien ospea. 1891. urtetik aurrera ezin arrakasta handiagoa izan zuten Holmesen istorioek, eta horren antzeko detektibeen istorioak Britainia Handiko eta AEBko aldizkarietan azaltzen hasi ziren.

Halere, I. Mundu Gerra amaitu ondoren, behera etorri zen kontakizun laburraren nagusitasuna. Julian Symonsek dioenez, liburutegi ambulanteak agertu ziren eta liburuak erraz zabaldu ziren jendearen artean. Emakumeak ere irakurle bihurtu ziren emantzipazioaren ondorioz, eta detektibe nobelak oso gustuko zituzten. Bestalde, misteriozko ipuinak argitaratzen zituzten aldizkariak egunkarien itzalpean jausi ziren (129-130). Urte erabakigarri bat 1927 izan zen, Agatha Christie *Roger Ackroyden hilketak* argitaratu zuenean. Sona handiko lana izan zen, eta krimenaren erregina bihurtu zen idazle britainiarra. Urte hartan bertan, Sherlock Holmesen azken abentura argitaratu zen *The Strand* aldizkarian, zeinak askoz ere irakurle gutxiago zeukan Victoria erreginaren garaian baino. Era berean, S.S. Van Dine eta Frances Noyes Hart idazleek urte hartan bertan atera zuten eleberri bana atalka *Scribner's* eta *Saturday Evening Post* aldizkari iparramerikarretan.

Beraz, esan daiteke detektibe nobela klasikoa ondo finkatuta zegoela 1920ko hamarraldiaren amaieran. Kontua da estandarizazio prozesu bat gertatu zela, non idazlerik trebeenek generoaren ezaugarriak findu zituzten irakurleek eskatutako produktuak sortzeko. Gainera, nobelak idazteko bezainbeste ahalegin egin behar ziren ipuinak idaztean, eta emaitzak errentagarriagoak ziren eleberriekin. «Urrezko Aroa» deritzogun garai hartan detektibe nobela klasikoen egileek Poerengandik zetorren hariari heldu eta mataza handi bat sortu zuten korapiloz betea, betiere oinarrizko printzipio

batean berrmatuta: krimena jolas intelektuala zen. Honela zioen, adibidez, R. Austin Freeman idazle britainiarrek:

The distinctive quality of a detective story, in which it differs from all other types of fiction, is that the satisfaction that it offers to the reader is primarily an intellectual satisfaction.

Jolas guztietan bezala, arauak ezarri behar ziren jolasteko, eta formula batzuk garatu zituzten egileek eta kritikoeak. Detektibe nobela klasikoan honako hauek ziren, besteak beste:

The typical detective story presents a group of people assembled at an isolated place -- usually an English country house -- who discover that one of their number has been murdered. They summon the local constabulary, who are completely baffled; they find either no clues or entirely too many, everyone or no one has had the means, motive, and opportunity to commit the crime, and nobody seems to be telling the truth. To the rescue comes an eccentric, intelligent, unofficial investigator who reviews the evidence, questions the suspects, constructs a fabric of proof, and in a final dramatic scene, names the culprit (Grella, 85).

1920ko hamarraldiko egileek eskema hori erabili zuten, zenbait aldaketa gorabehera. Symonsek zehazki deskribatu ditu garai horretan idatzitako detektibe nobelen ezaugarriak. Oro har, ezin zen sen hutsa erabili, edota inoren susmoak, arazoa argitzeko, ez eta kointzidentziarik ere. Ordea, aztarnak aurkeztu behar zitzaizkion irakurleari eta hortik ondorioak atera. Ustekabean argitutako enigmak ez ziren zilegi detektibe nobela klasikoan; horregatik, egileak kontu handiz eman behar zituen argibideak irakurleak ere arazoa argitzeko aukera izan zezan. Era berean, hiltzailea ezin zen etxeko zerbitzari bat izan, ez eta gaizkile profesional bat ere (142-145).

Horrela, idazleari benetan axola zitzaizkion pertsonaiengan kokatzen ziren susmoak, hau da, gizatalde sozial jakin bateko kideetan². Detektibe no-

² Loidiren eleberrian pertsonaia batzuen zerrenda ageri da liburuaren hasieran, Agatha Christie eta beste idazle batzuen nobeletan bezala. Baliabide horrek funtzio bereziak ditu: alde batetik, eleberriaren unibertsoa mugatzen du, pertsonaia garrantzitsuek sortua; bestetik, enigma bat ematen zaio irakurleari, pertsonaia horietako bat, derrigorrean, hiltzailea delako. Hirugarren funtzio

belaren arrazoizkotasuna azpimarratzeko, hiltzailearen arrazoiak ere arrazoizkoak eta pertsonalak izan behar zuten. Inork ez zuen hiltzen arrazoi politikoengatik, adibidez, edota erokeria momentu batengatik. Honela, inguruko gizartearen gatazkak eta tentsioak detektibe nobelaren iragazkitik pasa eta gero, ekintza intelektual baten plazer estetikoa baizik ez zitzaion geratzen irakurleari. Izan ere, nobela horietan ez ziren azaltzen orduko gizartearen gatazkak ez klaseen arteko liskarrak, eta arazo gehienak pertsonalak ziren.

Horrekin batera, kontakizunaren batasunari ematen zitzaion garrantzia eta debekatuta zegoen istorio erromantikoren bat tartekatzea. Pertsonaiak ere maitemintzen ziren, jakina, eta batzuetan maitasunarengatik hiltzen zuten norbait, baina maitasunezko istorioak oso eskematikoak ziren, inoiz ez zuten nagusitasunik hartzen kontakizunean. Detektibe nobela klasikoaren «arazo» nagusia problema ia logiko edo matematikoa zen: hiltzailea nor zen argitzea. Horregatik deitzen zitzaion «problema nobela», «enigma nobela» edota «whodunit» (nork egin du?) azpigenero honi.

Detektibearen arketipoa detektibe nobela klasikoan

Errealitatean gertatu ohi zenaren kontrakarrean, detektibe nobela klasikoan gertatzen ziren ikerketak ez ziren poliziaren esku uzten normalean, baizik eta detektibe pribatu baten eskuetan. Detektibea pertsonaia ezinbestekoa zen, mundu mitiko horretako arketipo nagusia, menturaz. Detektibea idazlearen eskutik zihoan misterioak argitzen, eta batzuetan idazlearen beraren *alter ego* mozorrotua zen. Hor dugu, adibidez, Philo Vance pertsonaia, S.S. Van Dine goitzenaz idazten zuen W.H. Wright arte kritikari iparrame-

praktiko bat ere badu baliabide horrek: beharrezkoa da irakurleari laguntza ematea pertsonaia asko agertzen direnean, haria ez galtzeko. Bestalde, pertsonaien makaltasunaren sintoma izan liteke. Hau da, zerrenda bati begiratu behar bazaio pertsonaiak nortzuk diren gogoratzeko, idazleak ez ditu pertsonaia horiek gogoangarri bihurtu. Horrexek garamatza pentsatzera kritikari batzuek esandakoan, alegia, detektibe nobela klasikoan pertsonaiak nahikoa topikoak eta eskematikoak direla, argumentuaren mesederako sortuak.

rikarrak sortua, edota Ellery Queen bera (idazlearen izena eta detektibearen izena berdinak ziren kasu honetan), bi lehengusu brooklyndarrek sortua.

George Grellak ezaugarri batzuk azpimarratu ditu detektibe nobela klasikoan detektibeei dagokienez:

They generally possess a physical appearance as distinctive as Holmes' hawklike profile –they may be either very tall or very short, very fat or very thin, or they may affect unusual attire. They are usually pronounced eccentrics, enjoying odd hobbies, interests, or life styles, and frequently overindulging in what Auden calls the «solitary oral vices» of eating, drinking, smoking, and boasting. (Grella, 90-91)

Detektibearen ezaugarri fisiko eta psikologikoak nahikoa markatuta badaude ere, detektibearen rol arketipikoan nabaritzen da gehien detektibe nobela klasikoaren funtzioa. Izan ere, detektibe adimentsu horren rol nagusia egiaren eta justiziaren bila ibiltzea da, zaldun ibiltari baten gisara (Colmeiro, 68). Era berean, detektibeak isilpeko funtzio bat dauka: bitartekaritza lana egitea gizarte itxi batean, goiko eta beheko mailen artean. Nolabait esateko, detektibeari esker, gizarte itxi eta isilpeko batean sartzen da irakurlea, barruko gorabeheren lekuko izateko.

Nola sortu zen lehenengo detektibe nobela euskaraz

Gatozen orain euskal literaturaren kasura, hain zuzen ere, gerraondoko urteetan idatzitako lehenengo eleberri poliziakoa nola sortu zen ikusteko. Detektibe nobela klasikoa nahikoa zabaldua zegoen Espainian eta Frantzia Loidik bere eleberria idatzi zuenerako. Urrezko Aroko idazleen lanak Espainian 1933az geroztik gutxienez argitaratzen hasi ziren: Agatha Christie, S. S. Van Dine eta Ellery Queen-enak. Bestalde, Edgar Wallaceren nobelak eta nobela herrikoien bildumak oso ondo saltzen ziren, lehendik ere zetorren tradizioari jarraikiz (Vázquez de Parga 73). Gerraondoko urteetan, detektibe nobelari buruzko artikulak eta iritzi liburuak argitaratzen hasi ziren. Espainiako intelektualetan organikoaren juzguak detektibe nobelaren aldekoak ziren, batez ere, eskola britainiarren aldekoak, betiere joko intelektuala azpimarratuz.

1940ko hamarraldian, Espainiako argitaletxeak, generoaren arrakastaz profitatu nahian, egile espainiarren lanak plazaratzen hasi ziren. Hori dela eta, aipatzekoa da detektibe nobela horien egile asko nobela ingeles eta amerikarren itzultzaileak zirela, eta generoaren formulak zuzenean egokitzen zituztela. 1942. urtean Molino argitaletxe ospetsuaren «Biblioteca Oro»n egile espainiar bat azaldu zen: Juan Montoro (José Mallorquí, El Coyote-ren egilearen goitizena). Harrezkero, beste zenbait egilek idatzi zituzten detektibe nobelak bilduma horretan argitaratzeko.

Mimetismoz egindako lan horiek misterioaren alorrean, hau da, detektibe nobela klasikoaren alorrean kokatzen ziren³. Ez da zaila hipotesi bat plazaratzea halako generoa gerraondoko gizartean txertatzeko arrazoiak bilatzeko. Zer hoberik halako garaietan eguneroko errealitate gordinarekin zerikusirik ez zeukan literatura baino? Hain zuzen ere, azpigenero honen artifizialtasuna oso egokia zen gizarte batetik bestera txertatzeko. Izan ere, gertakizunak, benetako gizartearen kezketatik kanpo gertatzen zirenez, edozein lekutara eraman zitezkeen, baldin eta itxurazko pertsonaia talde bat sortzen bazen.

Euskal literaturan ere generoa agertu zen, modu berezian agertu ere, inguruko baldintza soziopolitikoak kontuan hartuta. Ordura arte euskal literaturaren kokagune nagusia baserrialdea zen. Hala ere, detektibe nobela klasikoa euskal gizartean txertatzekotan, arazoak izango ziren enigma misteriotsu bat baserriaren esparru txiki eta itxi batean kokatzeko. Era berean, ezinezkoa izango zen Donostia edo Bilbo bezalako hiri erdaldunetan ekintza osoa antolatzea. Hori zela eta, Loidik alegiazko herri txiki bateko mikrokosmosa aukeratu zuen bere istorioa kontatzeko. Garaiko irakurleek ontzat eman zuten eleberriaren kokagunea, euskal mundu bat bertan islatuta ikusten baitzuten. Horrela uste du Gotzon Garatek, behintzat: «Egiatzko gizartea ispilatzen zaigu [Loidiren eleberrian]» (62-63).

³ Ordea, nobela beltza izeneko generoa, AEBn 1920-30eko hamarraldian sortua, ez zen heldu Espainiako argitaletxeetaraino detektibe nobela klasikoaren baldintza berberetan. Ez da harritzekoa, zeren nekez igaroko baitziren zentsuraren iragazitik nobela beltzaren osagaiak: poliziaren eta boterearen ustelkeriaren salatzea, sexu harremanak ekintzaren eragilea izatea eta bortizkeria age-gian erakustea.

Martin Garaidiren fitxa

15 egun Urgain'en eleberrian lehenengo euskal detektibea aurkeztu zitzaion euskal irakurleari: Martin Garaidi. Loidik ez zigun zehatz-mehatz azaldu nondik zetorren Garaidi, nolako historiala zeukan eta abar. Hala ere, eleberritik ateratako pasarte eta informazioekin halako detektibe fitxa egin genezake Martin Garaidi ezagutzeko. Horrela deskribatzen du Loidik bere detektibea, lehenengoz azaltzen denean:

Sartu zana gizon gazte bat zan. Or ogei ta amabost urte edo zituen. Ondo jantzia, sendoa, arpegi-zabal, alaia. Beti irriparrez; alde guztietan alaitasun-jario zebillena... Bere lanetan berriz, gauzarik naspillatuenak ere argitzen zekiena. Azkarra benetan! (30)

Beraz, aldi berean ezaugarri fisikoak eta adimenezkoak ematen dizkigu Loidik Garaidiren portreta egitean. Detektibe euskalduna ez dago oso urrutiti Philo Vance, Ellery Queen edota Lord Peter Wimseyengandik, itxuraz behintzat: gaztea, ondo jantzia, sendoa. Loidik berak aitortzen zuenez, bere sortzailearen ezaugarri batzuk ere baditu Garaidik: zuzena izatea, gizaseme ona eta garbia izatea.

Honela deskribatzen du Garaidik berak bere lana:

Nik jarriko zindueketan nere tokian; egon batean, egon bestean, otxak iltzen atzo, beroak itotzen gaur, busti-busti eginda biar, aspertu emen, aspertu an, itoka orain, ler-eginda gero, batetik bestera ibilli ta ibilli, usaika emen, usaika an... (198)

Alde horretatik, benetako detektibe baten deskripzioari egokitzen zaio, eta ez nobeletako pertsonaia bati. Edo behintzat, ez detektibe nobela klasiko baten detektibeari⁴. Badirudi Loidik Sherlock Holmesen aspaldiko eredu hartu zuela hemen, edota irudi zinematografikoren bat: detektibea jendearen zelatan. Horrela, intelektualtasunari ez baina ekintzei ematen zaie garrantzia.

⁴ Era berean, amaiera aldera azaltzen zaigu Garaidiren helbidea: «Loyola kaleko 35, Donostia» (190). Sherlock Holmesen 221B Baker Street kalea ospetsu egin zenetik, detektibe nobelen osagarri tipiko bat dugu hiriko helbide bat detektibeentzat.

Bestalde, Garaidiren lana zertan den azaltzen digu Maritxu pertsonaiak: «Bere buruz lapur ta eraille billa jarduten dana. Oso azkarra ta gauza oetara oitua» (26-27). Garaidik berak baieztatzen du lapurrak harrapatzen aritua dela, «[m]akina bat lapur arrapatu izan det» (43). Argi dago erretorika hutsa dela adierazpen hori, zeren garai hartan ezinezkoa izango baitzen Espainian «makina bat lapur» zegoela esatea: estatu polizial batean, behintzat, onartezina izango zen lapur asko zeudela aitortzea.

Loidik guztiz erakargarri aurkezten digu detektibe pribatuaren lana, Garaidiren gogoeta hauen bidez:

Aiek ordu luzeak! Egia esan, sarritan ematen zizkion bere bizibideak orrelako nekeak, baina ez zituen gogo-txarrez artzen. Bai zera! Ustegabeko gauza oetara oso zalea bait-zan! Izan ere! Ain atsegari ta kilikagarri zitzaion bere lana! (51)

Horrela, abenturak bizitzea eta misterioak argitzea plazerezko ekintzak bihurtzen dira detektibearen gogoan, eta literatura pertsonaiekin gertatu ohi den identifikazio prozesuaren bitartez, irakurlearen gogoan. Kontuan hartu behar da hor ere Garaidik azalpen erretoriko bat ematen duela, alegia, kontakizun literario baten konbentzioan oinarritua. Ez gaude urrun, beraz, detektibe nobela klasikoek teorikoek azpimarratzen duten plazer intelektualetik.

Eleberrian ikusten denez, Garaidi aldarte oneko detektibe bat da, alai eta umorez bete⁵. Elkarrizketetan zorrotza da eta zirtoak botatzeko prest dago. Horrela, Maritxuk lurperatzailea oso gizon langilea eta «perresilla bezala zernaitarako ona» dela diotsonean, honela erantzuten dio Garaidik: «Ipuiak esateko ere bai?» (32). Hain zuzen ere, umorea dugu eleberriaren ezaugarri bat, eta Garaidi, hein batean, detektibe alai eta umoretsu izanda, detektibe nobela klasikoek detektibeengandik urruntzen da.

Garaidik hiru laguntzaile ditu: Patxi, Jose Ramon eta Justin. Ikusten denez, Garaidi ez da diletante bat: itxuraz, lanbidetzat dauka detektibe izatea.

⁵ Garaidik hitz berezi bat erabiltzen du jarraitu behar dituzten pertsonak izendatzeko: «zomorroak» (114).

Alde horretatik ere, detektibe nobela klasikoen detektibeengandik urruntzen da, haiek gehienetan bere kaxa ari baitziren⁶.

Garaidiren teknika nahikoa lausoa da: «...bere susmoak, onak edo txarrak, beretzat gorde, bestearnak, zuzenak edo okerrak, entzun, eta bion arte... egia azaldu.» (104) Ez dirudi oso azalpen arrazionala, nahiz eta azpi-generoaren konbentzioetan sartu; horra hor, Poiroten «zelula grisak» edota Philo Vanceren burmuinaren mekanismo logikoak, inoiz ere azaldu gabeak. Alabaina, Garaidi ekinzalea da, ez da detektibe intelektual huts bat, ez da egongelan gelditzen edo liburutegian zarratzen ikerketak egiteko⁷. Aitzitik, detektibe nobela klasikoen detektibeen kontrakarrean, susmagarrien atzetik ibiltzen da⁸.

Nolanahi ere, Garaidi detektibe zientifiko bat da, horrela azaltzen digu Loidik behintzat. Bere metodoetariko bat hatz aztarnak aztertzea da: «noro-nork beatz zantzuak utzi zituela...» (43). Gainera, eleberrian kapitulu oso bat eskaintzen zaio karbonoaren probari, objektuak sortutako data zehazteko. Detektibe nobela klasikoetan ere azalpen zientifikoren bat tar-

⁶ Esan genezake, bestalde, Loidiren eleberrian Watson doktorearen rola emakumeek betetzen dutela batzuetan. Garaidik azalpenak ematen dizkie Iñaxiri eta Maritxuri, adibidez, eta emakumeak detektibearen kontrapuntu bihurtzen dira eszena horietan. Alde horretatik eleberriko pertsonaiak nahikoa orekatuta daude generoari dagokionez. Iñaxi, Maritxu, Begoña, Karmentxo, Manuela eta Iziar, Garaidiren emaztea, behin baino gehiagotan azaltzen dira, eta betiere argibideekin edo kontu esanguratsuekin datoz. Nolanahi ere, sexuen rola ere nahikoa tradizionalak dira eta emakumeen esparrua sukalde ingurukoa da, haurrak zaintzen edota etxeko lanak egiten. Salbuespen bakarra Begoña da, denda baten jabea, baina kasu berezia da atzerritarra eta umezurtza delako. Gizonezkoak, berriz, gizarte rol aktiboetan azaltzen dira: medikua, ikaslea, langileak, ostatuko jabea, ondusunen jabea eta detektibeak. Alde horretatik, ez dago emakume detektiberik eleberri honetan, detektibe nobela klasikoetan bezala (Marple andrearen salbuespenarekin, adibidez).

⁷ Adibidez, ardotegi batean sartzen da laguntzailearekin pertsonaia susmagarri bat gertutik zaintzeko. Beste batean, Frantziara doa ikerketak egitera.

⁸ Era berean, Garaidik pistola bat darama aldean betiere, agian detektibe nobelen osagai topiko bat ekartzearren. Armak aldean eramatea arazotsua izango zen Espainiako gizartean, baimenak eskuratzeko baldintzak kontuan hartuta. Ez da sinesgarria egiten halakorik gerta zitekeenik, baina nobela enigmaren mundu artifizialean halako lizentziak har daitezke, irakurleari «suspension of disbelief» pixka bat eskatuta.

tekatzen zen noizbehinka, eta R. Austin Freemanen kasuan, pisu handia zeukan metodo zientifikoak probak biltzeko.

Metodoetan eta ikerbideetan Urrezko Aroko detektibeengandik gertu badago ere, beste alor batean detektibe euskalduna apur bat urruntzen da haien irudi idealizatutik. Garaidi ezkondata dago eta haurrak ditu: «Iziar eta umeak ondo?» galdetzen dio Maritxuk (31). Garaidiren emaztea ere noiz-bait azaltzen da kontakizunean, etxeko gorabeherak aipatuz eta Garaidiren bitxikeriak ironiaz komentatuz, bere lana dela eta. Loidik detektibe arrazional eta supergizonaren irudia apur bat beheratzen du horrela, lurreraino eraitsiz bere pertsonaia. Areago, Garaidiren emazteak umorez kritikatzten ditu Garaidiren joan-etorriak eta lanerako grina, komediako eszena batean bezala⁹.

Garaidi, bestalde, batetik bestera dabil autoan jendearekin hitz egiteko eta aztarnak biltzeko. Detektibearen autonomia azpimarratzen du horrela Loidik eta mundu modernoago bat iragartzen du euskal literaturan¹⁰. Aipatzekoa da, adibidez, Garaidik galdeketa bat egiten diola Muñuberi bere autoan (164). Halaber, telegramak bidaltzen ditu eta telefonoz ere aritzen da behar duenean. Ezaugarri horiek ondo egokitzen dira detektibe nobela klasiko bateko detektibeekin, modernotasunaren paradigma baitira, Poerengandik hasita. Informazioa arin helarazten da leku batetik bestera eta tresna berriak behar dira jakinaren gainean egoteko. Irakurlea mundu moderno baten lekuko bihurtzen da Garaidiren eskutik.

Bestalde, Garaidik detektibeen bitartekari lana egiten du: goi mailako eta behe mailako gizartearen kideekin harremanetan jartzen da. Hasieran, Txomin lurperatzailearekin biltzen da hilerrian andre baten hilku-

⁹ Gotzon Garatek irudi arrunt hori goraiatu du, adibidez: «Amabost egun Urgain'en-go Garaidi detektibea jatorra da, gentleman, gogozkoa egiten zaiguna. Gertakizunen haria dotore eramaten duena. Urgaingo gertakizun normalentzat Loidik detektibe normal bat aukeratu du» (Garate, 64).

¹⁰ Leku batetik bestera ibiltze hori gerraurreko euskal idazle batzuen esperientziekin lotzen du Garaidik, hala nola, Lizardiren «Bultzi-leihotik» olerkiko pertsonaiaarekin edota Etxepare medikuaren txangoekin, «Berebitez» liburuan emanak. Dagoeneko, Loidiren pertsonaiak bere eginda dauka mundu modernoaren presentzia eta ez du bilatzen izadiaren erredentzia, Lizardiren ahots poetikoak bezala.

txan begiratzeko. Gero, Egurmendiren jauregira azaltzen da detektibe nobela klasikoen egoitza horietako bati bisitaldia eginez¹¹. Azken eszenetan, pertsonaia nagusiak gela berean bilduta, Garaidi azalpenak ematen hasten da, ikerketaren nondik norakoak azalduz eta korapiloa askatuz. Detektibe nobela klasikoaren konbentzio bat errespetatuz, Garaidik hitzaldi bat ematen du amaieran, Urgain'en benetan zer gertatu zen azaltzeko (209).

Garaidi pertsonaia aztertuta, lehen euskal detektibe nobela klasikoaren ahultasunak eta balioak antzematen ditugu aldi berean. Idazlearen ikuspuntu orojakile baten mendean egonda, Garaidik ez dauka autonomiarik bere pentsamenduak azaltzeko. Era berean, oso azaletik deskribatzen dira Garaidiren lan-harremanak eta teknikak. Alde onen artean, honako hauek aipatuko ditugu: pertsonaia gizatiarra da Garaidi, umorez betea, modernotasunaren eta zientifikotasunaren aldekoa. Detektibe nobela klasikoaren detektibearen arketipoa betetzen du hein handi batean, azpigeneroaren arauak errespetatuz. Bestalde, elkarriketetan nahikoa zalu dabil detektibe euskalduna, betiere irakurleari ustekaberen bat emanez, esaldi umoretsuekin batera. Detektibe nobela klasikoen detektibe peto-petoa ez bada ere, Garaidik lehen urratsak erakusten dizkie geroago etorriko diren euskal detektibeei.

Generoa nola txertatu euskal literaturan

Oraindik ere zehazki aztertzeko dago nola garatu zen gerraondoko euskal literatura, batez ere, egoera soziopolitiko kontuan hartuta. Gerraurreko egiturak eta ekimenak (argitaletxeak, egunkariak, herri eskolak, kultur elkarteak) deseginda zeuden eta euskara bera ere, hizkuntza debekatua bihur-

¹¹ Loidik detektibe nobela klasikoaren egoera topikoak ere erabiltzen ditu: jatea, edatea eta elkarren arteko solasaldiak izatea. Garaidi Joxe Jokinen ostatuan gosaltzen dabil, Maritxuk babarrunak jatera gonbidatzen du gure detektibea, eta beste batean «izoki puska gozatsu bat» ematen dio jaten. Egurmendik zigarroak eskaintzen dizkie Garaidiri eta laguntzaileari. Amaiera ere, bazkalondo batean zertzen da, eta korapiloa guztiz askatzen denean, Garaidik denak gonbidatzen ditu kopatxo bat hartzera berekin (224).

tu zen jarduera publiko guztietan¹². Nolanahi ere, apurka-apurka lehenengo mugimenduak antzematen hasi ziren kultura literario baten inguruan: *Euzko Gogo* (1948) eta *Egan* (1950) aldizkariak sortu ziren, Eusko Ikaskuntzaren VII. biltzarra egin zen Miarritzen 1948an eta Euskaltzaindiak lanari berrekin zion, besteak beste, lehiaketa bat antolatuz.

Ordura arte, euskal nobelagintzaren bilakaeran kostunbrismoa genuen nagusi, baina gerraondoan ez zuen balio proiektu nobelistiko baterako. Honela, Irazustaren *Joanixio* eta Eizagirrereren *Ekaitzapean* erdibidean gelditu ziren, nobela errealistaren osagaiak guztiz mamitu gabe. Era berean, Mari Jose Olaziregik gerraurreko nobelei buruz aipatu dituen ezaugarriak (fedea, abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna) zutabetzat zeuzkaten nobelak ere lekuz kanpo zeuden, bai eta euskararen defentsa ere. Gerraondoko gizartean ezinezkoa zen abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna aldarrikatzea. Gainera, ordurako fedearen eta erlijioaren baliabideak ez ziren aski mundu modernoaren gorabeherak eta pertsonen bizitza pribatuaren inguruan gertatzen ziren fenomenoak azaltzeko.

Loidiren eleberria kasu berezia da euskal nobelagintza modernoaren bilakaeran, detektibe nobela klasikoa ez baitzen inolaz ere modernitatearen kezka eta gizabanakoaren gatazkak islatzeko ibilgailu literariorik aproposena. Generoaren ezaugarri nagusiak, hau da, unibertso itxi eta hautazko bat, pertsonaia estereotipatuak, arrazoimenaren ustezko nagusitasuna eta amaiera itxia, gizarte burgesaren mitologia baten ezaugarriak dira. Mitologia horren arabera, gizataldearen unibertsoa atsegina eta arrazoizkoa da, eta arrazoimenaren arabera ordenaturik dago. Mundu ordenatu horretan pentsamendu enpirikoaren ahalmena nagusitzen da (Grella 101). *Fair-play* edo joko garbiaren kontzeptua ere hor sartzen da: idazleak irakurleari iruzurrik ez egitea, edota, Loidik zioenez, «gezurrik ez esatea». Irakurleak ez du zalantzarik izango gizarte horretan hiltzaileak eta gaizkileak zigortu egingo dituztela eta gizartearen bizitza lasaia eta ondo arautua bermatuta geldituko dela.

¹² Ikusi, adibidez, Jon Bilbaok Eusko Ikaskuntzaren 1948ko biltzarrerako prestatu zuen txostena. Beste neurri batzuen artean, 1947an Subsecretaría de Educación Popular delako erakundeak San Tomas egunean Donostian euskaraz eman behar zen antzezlan bat debekatu zuen (Bilbao, 851).

Horretan dago detektibe nobelaren xarma hainbat irakurlerentzat: segurtasunezko esparru bat ematen die garai bortitz eta aldaketez beterikakoetan (Grella, 101-102). John Cawelti ikertzaileak dioenez, mundu formulaikoe-tan irakurlea seguru sentitzen da, nahiz eta mundu hori arrisku handiko osagaiez osatuta egon (126). Izan ere, egileak mundu berezi bat eraikitzen du bere gisara eratuz eta antolatuz errealitatean menderaezin eta kaotikoak suertatuko lirakeen osagaiak. Azken batean, detektibe nobela klasikoaren enigma intelektualen atzean ordena sozialaren apologia ezkututzen da (Colmeiro 61). Horregatik, krimena argitzen denean, ordena morala eta soziala berrezartzen da eta gizartearen oinarriak indartuta azaltzen dira.

Hori dela eta, komeni da gogoratzea errealitatearen arriskuez arduratzen dela detektibea, bitartekari lana eginez. Hona zer dioen Vázquez Montalbánek:

En una sociedad supercapitalista es donde tiene plena lógica la función de los intermediarios, el psiquiatra, el gestor, el asesor fiscal, el abogado, el detective privado, son necesarios para que el individuo pueda sentirse inmediatamente seguro en una sociedad peligrosa. (Vázquez Montalbán, 30)

Honenbestez, aipatutako bitartekaritza lanari beste eragile bat erantsi ahal diogu: idazlea. Izan ere, idazlea ere bitartekari bihurtzen da, hain zuzen ere, gizartearen mehatxuen eta irakurlearen beldurren artean¹³.

Paradoxikoki, nobela problema horietan ere kontraesana dago, detekti-beak gizarteko maila ezberdinak agerian jartzen dituelako. Horrela, nobelaren oinarrizko egituraren gizarte tradizionalaren defentsa badago ere, gizartearen zoko-mokoak eta geruzak agerian ezartzen ditu detektibeak/idazleak nahigabe. Nolabait esateko, gizartearen antolamenduaren hainbat aje eta mekanismo salatzen ditu detektibearen begirada horrek. Loidiren eleberrian, adibidez, gizatalde horren kontrol soziala kolokan dago, herrian zehar zabal daitezkeen zurrumurruek direla eta. Dagoeneko, kontrol sozialaren arrakalak nabaritzen dira, informazioa banatzen den moduagatik; hau da,

¹³ Loidiren eleberrian, irakurlearen balizko beldurrak ere hor nonbait azaltzen dira, eszena batean, langileek sor litzaketen «egundoko istiluak» aipatzen direnean.

gizarteak estatikoa dirudi, baina edozein momentutan hankaz gora jar daiteke haren ordenamendua. Gizatalde horren botere harremanak, berriz, agerian azaltzen dira ikusten dugunean nor izan litekeen kaltetuena, zurrumurruak zabalduz gero: Egurmendi aberatsa.

15 egun Urgain' eneko egoera misteriotsuaren ardatza identifikazio prozesua da: nor den nor jakitea. Izan ere, kontakizunaren harian poliki-poliki ohartzen gara pertsonaiek ez dutela benetan ezagutzen inguratzen dituen jendea. Bizitza bikoitzaren gaia detektibe nobela klasikoetako hilketa askoren arrazoia da, gizataldearen oreka apurtzen duena. Detektibearen lana oreka berreskuratzea da, azalpen logiko bat eskainiz kezkatan dabilen gizataldeari. Hori dela eta, Garaidiren eginkizun nagusia gizatalde baten inguruan dagoen sekretua isilpean gordetzea da, pribatutasunaren mugak zainduz. Horrela, Egurmendi aberatsaren izen ona gordetzen da, eta isilpeko itun bat dela medio, gizataldearen botere harremanak lehen bezala gelditzen dira. Agatha Christiek ere taldearen hitzarmena erabili zuen *Orient Expresseko hilketa* eleberrian, non amaieran taldekideek sekretu bat gorde behar duten pertsonaia desegoki bat gizataldetik kanpo bota ondoren¹⁴.

Alde horretatik, Loidik generoaren konbentzioak bere erara erabiltzen ditu hibrido bat sortzeko. Genero herrikoen kritikoek aipatu dutenez, halako generoek herri bakoitzaren kultura ulertzeko baliabideak eskaintzen dituzte. Izan ere, kultura nazionalak nazioarteko formulak beren erara egokitzen dituzte eta ez dute kultura homogeen bat sortzen, Adornok kontrakoa uste bazuen ere (Pyrhonen 86).

Ez da zaila ikustea itzulpen prozesu baten bidez jaso zituela Loidik bere eleberrirako teknika eta osagaiak, eta horri esker gainditu zituela berez aurkezten zitzaizkion arazoak¹⁵. Nolanahi ere, Loidi ez zen mugatu kanpoko

¹⁴ Horregatik, ez da harrigarria Garaidik hildakoaren arazoa isilpean gorde nahi izatea, polizia ezer esan gabe. Izan ere, polizia gerraondoko errealitateari atxikitako osagai negatibo bat zen. Euskal nobela batean agertzekotan, «etsaien» sailean agertu beharko luke (eta hala agertuko zen Saizarbitoriaren *100 metron*, adibidez).

¹⁵ Loidik Simenon, Agatha Christie eta Conan Doyle aipatzen ditu eredu gisa. Ikertzekoa litzateke, adibidez, Frantziako «Série noire»ko eleberrien eragina Loidirengan, urte haietan eskuragarri

ereduak bere hartan imitatzeraz edo euskarara itzultzeraz. Aitzitik, eleberrian ageri denez, Loidik esku artean zeukan materiala birsortu egin zuen, harik eta bere gogoko narrazioa eraiki arte. Emaizta, bistan dago, ez da adaptazio gazbako bat, baizik eta euskal nobelagintzaren bilakaeran bere txokoa aurkitu zuen eleberri bat.

Langintza horretan, Loidik zenbait oztopo gainditu zituen, besteak beste, hizkuntzaren «kamustasuna», Iñaki Aldekoak euskal nobelagintzaren kasuan aipatzen duenez, (12). Gure ustez, Loidiren heziketa zientifikoak eginkizun horretan lagundu zion, euskara bizitza modernorako tresna gisa aise erabiliz, zenbait zalantza gorabehera.

Gerraondoko egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, nagusi zegoen dikotomia dugu: gaztelera hizkuntza modernoa, hiritarra eta zientifikoa da, eta euskara hizkuntza zaharra, baserritarra eta espresio lirikorako edo erlijiosorako egin. Publikotasunaren esparruan, erdararen mundu publiko eta agerikoa dugu, politikoki eta sozialki indartsu. Euskararen mundua, berriz, itxia eta isilpekoa zen, politikoki eta sozialki indargabe. Beraz, errepresentazio errealista bat erabiliz gero, gerraondoko euskal nobela bat pertsonaiaren barne gogoetara mugatuta egongo zen. Hala ere, oso modu bitxian, detektibe nobela klasikoaren eskemak erabilia, paradigma hori iraultzen da eta euskarak hizkuntza moderno, hiritar eta zientifikoaren lekua hartzen du Loidiren eleberrian.

Eleberriaren barneko egitura ideologikoari begira, hauze galdetu beharko genuke: nongo gizartearen apologia egiten ari da Loidi? Ez, hain zuzen ere, Espainia frankistaren apologia, jakina. Eleberria euskal hiztunen bilera jai-antzeko batekin amaitzen da, non iragartzen baitzaigu gizatalde horren ordezkariak (goiko eta beheko mailakoak) harmonian biziko direla. Azkenburu gisa, bi bikote elkartzen dira Garaidirenean, korapilo sentimentala ere nolabait askatuz. Amaiera zoriontsua, beraz, detektibe nobela klasikoetan bezala. Loidik klase ertaineko gizarte euskaldunaren apologia egiten du bere nobelan, hain zuzen ere, lan zintzoa eta balio tradizionalak azpimarratuz,

izango baitzuten Iparraldeko liburu-dendetan. Nolanahi ere, Loidiren irakurzaletasunak Britainia Handiko detektibe nobelara bultzatzen zuen, batez ere.

hilketarik gabekoa balitz bezala¹⁶. Diglosia bortitzean bizi zen euskal irakurleari errealitateko giroa inolaz ere erakutsi ezin zitzaionez, Loidik genero irreal batez jantzi zuen bere mundu euskalduna¹⁷.

Loidiren eleberria salbuespena da: lehiaketa baten ondorioz, mimetismoari erantzunez sortu zen. Euskarazko lan bat idatzi eta genero poliziakoa lantzeko gogoia uztartuz, Loidik Euskaltzaindiaren lehiaketaren aitzakia aprobetxatu zuen bere lana balioztatzeko. Jon Etxaidek irabazi zuen lehenengo saria, eta Loidiren eleberriak merezimenduzko aipamen bat jaso zuen. Ondoren, argitalpenaren eta banaketaren kostuak bere gain hartuta, Loidik bere kabuz argitaratu zuen lana. Garai hartan liburuaren dendetan salterik ez zegoenez, ahoz aho helarazi zitzairen euskal irakurleei Loidiren eleberriaren berri. Liburuaren argitalpen baldintzak kontuan hartuta (esaterako, zuzentzailerik zein aholkulari literariorik gabe), emaitza nahikoa duina lortu zuen Loidik.

Urte haietan agertu ziren lehenengo literatura liburuak baldintza berezietan ekoiztu ziren, sistema kultural baten oinarririk gabe¹⁸. Loidiren eleberria ondo kokatzeko, azpimarratu beharko genuke nolako eragina izan zuen euskal irakurleengan lehenengoz argitaratu zenean. Izan ere, irakurleek testuak nola erabiltzen dituzten ikustean argitzen dugu testuen eragin ideologikoa (Pyrhonen 107). Hori dela eta, ez da ahaztu behar nobela oso irakurria izan

¹⁶ Loidiren eleberrian, behe mailako emakume bat dugu biktima eta gizon aberats bat gorpu-trukearen eragilea (hilketarik ez badago ere). Azken batean, eleberriaren gizartearen balio-sisteman, honako balore hauek azpimarratzen dira: Txominen zein Pirminen lan nekazina, Iñaxi andreaken zuhertasuna eta Garaidiren beraren joan-etorri eta tratuak. Nolanahi ere, ez da gaitzesten gizatalde horretatik kanpo dagoen pertsona batekin harremanak izatea, ez eta atzerriko eragina ere, euskal nobela kostunbristetako egileen gaitzespenaren orde, begirada irekiagoa eskainiz.

¹⁷ Ez da harritzekoa Loidiren kasuan, hezkuntza zientifikoa jasotako idazlea izanda, detektibe nobela klasikoaren formulak agertzea. Jon Etxaidek, berriz, behinolako garaietara eraman zituen bere pertsonaiak Loidiren garaian idatzitako *Alos torrea* eta *Joanak joan* eleberrietan.

¹⁸ Garai hartako euskarazko produkzio kulturalak beheko mailan zeuden espazio sozialean interakzio linguistikoei begira. Dena den, datu zehatzagoak beharko genituzke literaturaren inguruko eragileen inguruan: irakaskuntza, inprimategiak, argitaletxeak, komunikabideak eta irakurleak. Halaber, gogora bedi kultura herrikoia adierazpenak nolako baldintzetan gertatzen ziren, besteak beste, bertsolaritzaren jardunak.

zela. Lehenengo argitalpena laster agortu zen, eta hainbat idazlek aitortu dute Loidiren nobela izan zela euskaraz irakurri zuten lehen nobela.

Gerraondoko euskal kulturak bere gisako ereduak behar zituen bizirik zegoela egiaztatzeke, eta beharbada horregatik onartu zuen hain sutsuki Loidiren nobela. Gerraondoan argitaratu ziren lehenengo liburuetako bat izanda, gainbalio bat hartu zuen Loidiren eleberriak, gaur arte ondo atxiki duena. Atenporalitatea bere alde dauka eleberriak, zeren iragan lauso batean kokatuta egotean ez baitago iraganarekiko kontraste nabarmenik kontakizunean. Alde horretatik, detektibe nobela klasiko gehienak, aukeran, «anakronikoak» dira, urteak igaro arren lehen bezain irakurgarri dira (Grella, 101). Nazioarteko parametroen arabera, Loidiren eleberria ez da moderno, jakina, ez ditu modernitatearen zantzuak, baina agian horregatik eutsi dio bere lekuari euskal eleberrien bilakaeran esperimentu gisa.

Esan dezagun, bada, *15 egun Urgain'en* lan polibalentea dela gaurko ikuspegitik begiratuta: alde batetik, euskarazko idazlan bat sortzeko asmoaz egin, hau da, ia-ia idazlearen ariketa gisa euskara ikasteko, euskal literaturan tarte txiki bat egin zuen garai hartan¹⁹. Misterioz blaitutako puzzle bat atontzean, Loidik detektibe nobela klasikoaren artifizialtasuna baliatu zuen²⁰. Eraitza, bistan dago, nahikoa arrakastatsua izan zen: Loidi mundu literario bat euskaraz adierazteko gauza izan zen, nazioarteko parametroen arabera. Denboraren poderioz, Martin Garaidi euskal detektibe nobelaren pertsonaia klasiko bihurtu da. Dirudienez, oraindik ere irakurle dezente dauzka nobelak, batez ere, irakaskuntzaren eraginez.

Lan honetan saiatu gara Loidik sortutako pertsonaia detektibe nobela klasikoaren parametroetan kokatzen, euskal literaturara egokitzeke ahale-

¹⁹ Ikus E. Masen aitzin-solasa eta egiten dituen egileen aipamenak: alde batetik, Cervantes eta abar, bestetik, Poe, Txekhov. Loidiren eleberria halako ingurunean kokatzean, lanaren literatura maila goratzen zuen kritikariak, tradizio baten abaroan ezarrit.

²⁰ Behin baino ez da aipatzen inguruko gizartean gerta zitekeen jazoeraren bat, eta hori greba hitza eta poliziaren parte hartzea esplizituki erabili gabe: «urrengo egunean, nik entzun nuenez beintzat, langille-arteko egundalako zarata izango zala Urgain'en noski; tiroak ere izango zirala noski...» (167). Bestelako osagai politikoak prozedura metonimiko baten bidez azaltzen dira eleberrian: Belgika aldean suertatzen dira torturak eta jazarpenak, ez Euskal Herrian.

ginak ikusita. Aipatu dugunez, egokitzapen horretan azpigeneroaren arauak zaindu zituen Loidik, baina, aldi berean, efektu bereziak lortu zituen, besteak beste, euskararen unibertso literarioa apur batez zabaltzea. Kontuak kontu, bakoitzak bere irakurketa egin dezake, eleberriak beste azterbide asko eskaintzen dituelako: emakumeen rola²¹, azterketa formalak eta egiturazkoak, polisistemen teoriaren araberakoa, hizkuntzaren inguruko ideologia... Hortik abiatuta, beste batzuek esango dute nola kokatu edo birkokatu behar den Loidiren nobela eta nolako sintomak adierazten dituen euskal literatura sistemaren ikuspuntutik begiratuta. Nolanahi ere, hirurogei urte pasa eta gero Martin Garaidik bizirik dirau euskal irakurleen gogoan eta oraindik ere zeresanik eman lezake.

Bibliografia

ALDEKOA, I. *Mendebaldea eta narraziogintza*. Donostia: Erein, 1998.

BILBAO, J. «Exposición sobre la actual posición de las autoridades españolas respecto de la lengua vasca». *VIIème Congrès d'Etudes Basques / Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua / VII Congreso de Estudios Vascos* (7. 1948. Biarritz). Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2003. 847-852.

CAWELTI, J. «The Study of Literary Formulas», *Detective Fiction: A Collection of Critical Essays*. Ed. Robin W. Winks. Woodstock, Vermont: A Foul Play Press Book, 1988. 121-143

CILLERO GOIRASTUENA, F.J. *The Moving Target: A History of Basque Detective and Crime Fiction*. Ann Arbor, MI: UMI, University Microfilms International, 2005.

COLMEIRO, J.F. *La novela policiaca española: teoría e historia crítica*. Barcelona: Anthropos, 1994.

²¹ Horiek horrela, eleberrian bere ahotsaz mintzo ez diren pertsonaia bi azpimarratu ahal dira: kontrabandisten familiako emakume tirokatua eta andre atzerritarra. Izan ere, ahotsik gabe daude emakume horiek agerpen publikoetan, eta bai bizia, bai nortasuna galtzen dute sinbolikoki irakurlearen aurrean. Biek bat egiten dute hilerriko gorpu horretan, bata bestearen lekua hartuta.

ETXANIZ, X. «Euskal literaturaren historia; begirada berriaz», *Euskera* 55, 2 (2010): 823-839.

FREEMAN, R. «*The Art of the Detective Story*» *Nineteenth-Century and After*, (1924) 713-721.

GARATE, G. «Euskal polizia eleberrien hasiera», *Jakin* 105 (1998): 53-69.

GRELLA, G. «The Formal Detective Novel», *Detective Fiction: A Collection of Critical Essays*. Ed. Robin W. Winks. Woodstock, Vermont: A Foul Play Press Book, 1988. 84-102.

HERNANDEZ ABAITUA, M. «Nobela beltza eta polizi nobela klasikoa», *Jakin* 25 (1982): 51-67.

LOIDI, J.A. Elkarrizketa. 1998ko abuztuaren 19koa.

———, *Amabost egun Urgain'en*. [Oñate]: Arantzazu, 1968.

LÓPEZ GASENI, J.M. «Genero periferikoen agerpena euskal literaturaren historietan», *Euskera* 55, 2 (2010): 841-852

MANDEL, E. «A Marxist Interpretation of the Crime Story», *Detective Fiction: A Collection of Critical Essays*. Ed. Robin W. Winks. Woodstock, Vermont: A Foul Play Press Book, 1988. 209-219.

OLAZIREGI, M.J. «Un siglo de novela en euskera», *Historia de la literatura vasca*. Ed. Patricio Urquizu. Madrid: UNED, 2000. 504-588.

PYRHÖNEN, H. *Murder from an Academic Angle: An Introduction to the Study of the Detective Narrative*. Columbia, SC, USA: Candem House, 1994.

SYMONS, J. *Historia del relato policial*. Barcelona: Bruguera, 1982.

VÁZQUEZ DE PARGA, S. *La novela policiaca en España*. Barcelona: Monsel, 1993.

VÁZQUEZ MONTALBÁN, M. «Sobre la inexistencia de la novela policíaca», *Antípodas*, XVIII (2007): 23-37.